



Asegarcek antolatutako Gabonetako I. Alai txapelketan, Arabako 21 pilota eskolako haurrak elkarren aurka lehiatu ziren. Guztira, 48 bikote aritu ziren binakako txapelketa azkarra jokatzeko. Giroa aparta izan zen, tanto ikusgarriak ikusteko aukera izan zen, eta

pilota partida politak eskaini zituzten pilotari gaztetxoek. Irudian, txapelketako txapeldunak ageri dira, garaikurrak eskuan dituztela, Arturo Arbizu, Iñaki Otxandorena, Patxi Ruiz, Alberto eta Ruben Beloki eta Karlos Armendarizekin batera.

rekin zebiltzala baieztatzean. «Gu ere pilotan hasi ginenean, ilusio handia egiten zigun antzeko jaialdietan parte hartzea, eta pozgarria da oso eurak horrela ikustea», aitortu zigun Oier Zearrak.

Oinatz Bengoetxeak argi zuen: «Pilotan aritzea eta zaletasuna izatea da garrantzizkoena. Zaletasuna dagoen lekutik pilotari on ugari ateratzen baitira». «Pilotari on ugari daudela erakutsi digute gaur; ziur gu erretiroa berehala bidaliko gaituztela», zioen erdi txantxetan Belokik.

Gaztetxo batzuek besteek baino maila hobea erakutsi arren, «garrantzitsuena pilotaren inguruan guztiak biltzea, ondo pasatzea eta zaletasuna sortzea» dela azpimarratu nahi izan zuen Zearrak.

Telebistan ikusten dituzte, eta euren idolo bilakatu diren pilotariak horren gertu izateak urduri jartzen zituen asko, eta haur gehienak apur bat lotsatuak zeuden. Hala, ezer galdezera ausartu gabe, ozta-ozta sinadura eskatu baino ez zutela egiten aitortu zigun Bengoetxeak. Izan ere, «gu ere lotsatu egiten gara askotan», aitortu zigun pilotariak.

Baina, lotsak alde batera utzita, haurrekin lau hitz egin, eta berehala giro aparta sortzen dela zioen Belokik. Batzuk, gainera, pilotariei tantoren bat edo beste egiteko irrikaz zeuden. Ez zen lan erraza, baina saiatzea merezi zuen.

Julen del Riok, 6 urteko mutikoak, ez zuen etsi nahi, han zebilen zesta puntako saskiarekin pilota guztiak harrapatu nahian. «Ez da horren zaila pilotariei irabaztea, nik partidaren bat irabazi diet», zioen pozik Julenek. Aurrez eskuz ibili bazen ere, zesta probatzea

erabaki omen zuen; izan ere, «hainbat partidaren ostean, eskuak hazita ditut», zioen kexati.

Baina eskuak hazita izan edo ez, tantoak galdu edo irabazi, ez zioen axolarik, telebistan ikusten zituzten pilotariekin egotea eta eurekin partida jokatzeko zen denetan garrantzitsuena. Asier Renobalesen gustuko pilotariak Aimar Olaizola eta Mikel Goñi diren arren, oso gustura zebilen, «ilusio handia egiten dit beraiekin jokatzeko». Gauza asko ikasi omen zituen, eta pilotariekin eman zizkieten aholkuak adi entzun eta betetzen saiatuko omen da aurrerantz.


Pilotarien sinadurak eta argazkiak

Pilotan jokatzeko gain, haurrak gustuko pilotariaren atzetik ibili ziren, hara eta hona, haien sinadura lortzeko. Hori zoramena! Behin horren hurbil eduki eta esku hutsik etxera joan; ezta pentsatu ere! Asegarce enpresak pilotalekuaren erdian pilotari guztien postalak jarri zituen haurren eskura. Haurrek argazki guztietatik bana hartu, eta han ibili ziren argazkiko pilotaria identifikatu, eta sinadura eske.

Sinadurarekin bakarrik konformatzen ez zenak, ordea, pilotariekin batera argazkia ateratzeko aukera izan zuen, txoko batean inprobisatutako frontoi txiki bateko kantxaren erdian.

Eguna borobiltzeko, berriz, Sebastopoleko Titiriteroak aritu ziren giroa alaitzen. Amaitzeko, opariak eta sariak izan ziren Mendizorrotzan bildutako haur guztientzat.

laburrak



Artikora itzuli dira

Hiru bat astez gure artean egon ondoren, Artikora itzultzea erabaki dute hartz zuriek. Gasteizko biztanleak eta haurrak, bereziki, eurekin oso ongi portatu diren arren, euren jaioterria itzultzea erabaki dute. Izan ere, bertako elurrak, giro hotza eta familia faltan ematen zituzten. Joan dira, beraz, berriro euren bizilekura. Inork albistea sinetsi badu, inozente eguneko txantxa bat baino ez zela esan behar da.



Jagoba Manterola / ARGAZKI PRESS



Aimar Olaizola txapeldun

Aimar Olaizola Goizuetako pilotari gazteak jantzi zuen, joan den igandean, lau t'erdiko txapela; eta, beraz, bera da lau t'erdiko txapeldun berria. Aurkari izan zuen Abel Barriola 13 tantotan utzi zuen Olaizolak. Ederki jokatu zuen Goizuetako pilotariak, ez zuen ezertan huts egin. Txapelketa bikaina jokatu du Olaizolak, eta sasoian dagoela erakutsi. Zorionak, Aimar Olaizola!